

ZURE ETXEBIZITZA HOBETU ETA BIZI

ETXEBIZITZA ETA
ERAIKUNTZA GEHIGARRIA
GUAIXE 2018-03-23 OSTIRALA



*Etxea goxo-goxo
bakoitzaren
beharren arabera*



Elorri eta galdetu konpromezurik gabe
Egurra, pelleta, gasa, gasoila, aerotermia... KALDEREN MANTENUA ETA KONPONKETA

Utzubar Industrialdea · 31839 ARBIZU · Tel.: 948 460 027 · Faxe: 948 460 953 · galartxa@galartxa.com



aurkibidea

3. Arkitektura

6. Margoak

7. Aerotermia eta geotermia

8. Berokuntza

9. Iturgintza

10. Zaharberritzea

11. Domotika eta segurtasuna

16. Leihoak

18. Aseguruak

19. Dekorazioa

20. Altzariak

21. Bioeraikuntza

22. Eraikuntza

Erkuden Mazkiaran Goikoetxea



Mariasun Erdozia Ulaia



**Andoni
Igoa Nazabal
Iñaki
Erdocia Goñi
Arkitektoak**



Mikel Arregi, 21, Lakuntza
Burundabide, 5-1B, Etxami Aranatz
693 473 951 • 647 226 325



ARKITEKTURA

mariasunerdozia@gmail.com 665716857
Zugarreta Kalea 36-1 Esk - ETXARRI ARANATZ


**ERKUDEN MAZKIARAN
GOIKOETXEA**

eraikuntzako ingeniaria
arkitekto teknikoa

energia-ikuskaritza

626 700 972 • 948 468 415
emazkian@coatnavarra.org


Erta Arruabarrena



Luis Mari Marcos Claver



ARKITEKTURA INTERIORISMOA DEKORAZIOA



Erta Elizondo Arruabarrena

www.arkiterta.es

arkiterta@outlook.es 687 06 07 87 zugaretta 54 Etxarri Aranatz

Construcciones IRUMENDI s.l.
Eraikuntzak

Tel./ Fax: 948 57 62 68
Estafeta kalea, 31 | 31830 Lakuntza
construcciones@irumendi.com
www.irumendi.com

LUIS M^a MARCOS CLAVER
ARQUITECTO Y URBANISTA
Zubetia 21-1 Altsasu 948-468430

2018ko arkitekturaren tendentziak

Berriz erabilitako materialak eta jasangarriak

2018an diseinu jasangarria izango da azken puntako eredua. Arkitekturaren eta barruko diseinuan ere, iraunkortasunak eta segurtasunak pisu handia izango dute eta ondorioz, burdinak eta hormigoia protagonismoa izango dute. Hala ere, material birziklatuak eta egur birziklatua ere erabiliko da. Ahal den gastu energetiko gutxien izango duten eraikin jasangarriak egitea da helburua.

Material birziklatu hauek jasangarritasuna emateaz gain, estetikoki ere oso interesgarriak dira.

Kontzientziadun diseinu soziala

Jendartearen parte hartzearekin bultzatutako diseinuak eta beti

ere jasangarriak. Honek, komunitatearen bizikidetzat hobetzen du.

Soinu gutxiago

Hirietan kexa gehien sortzen duen faktore kutsatzaileetako bat da. Egunez egun honengan pentsatzen diseinatzen duten arkitektoak gehitzen doaz.

Argiztapen naturala

Egun eraikinetan argiztapen naturala izatearen garrantzia nagusitzen da, eguzkiaren argiari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko.

Lo egiteko leku berriak

Egungo egoerak bultzatuta eta pisua partekatzearen ondorioz, beste mota bateko arkitektura proiektuak sortzen hasi dira.

Espazio txikietan bizitzeko eta lan egiteko espazioak sortuz.

Adimen artifiziala

Etxe adimentsuak egungo joera dira. Gero eta gehiago topa daitezke eta gero eta eskuragarriagoak dira.

Ezohiko eraikuntza metodoak

Material ezberdinekin esperimentatzean datza. Gero eta gehiago topa ditzakegu material biziekin (plastikoa) eginiko eraikinenak. Joera honek material

birziklatua erabiltzearekin lotura zuzena du.

Maria Pilar Bakaikoa



ARKITEKTOA

maria pilar bakaikoa

PROIEKTUAK ETA
EET ERAIKIN EBALUAZIO TXOSTENAK

Zure konfiantzazko arkitektoa 650 831 816

www.mariapilarbakaikoa.com

Isasia industrialdea A1 behea, Altsasu

2018rako hormen koloreak

Sentimendu batzuk ezkutuan gordetzen dira, eta zoriak edo indar misteriotsuren batek esnatzen ditu eta betirako kolore eder hauekin askatzen ditu. Ez ahaztu urte berrirako zenituen asmoak eta zure proiektuak elikatu. Zure hormen kolorea aldatzea urteari hasiera emateko modurik ederrena izan daiteke.

Urteko kolorea

Kolore honek misterioa arnasten du. Kuartzo kolore preziatua iradokitzen digu, amatista. Bitxietan eta dekorazioan joereta-rako kolorea 2018 urtean.



Urdinen sorta

Itsasoaren freskura kolore batean. Kolore hau betidanik dago eta 2018an ere bai. Urdinean lasaitasuna aurkituko duzu.



tate lasaiak eta lur kolorekoak. Sinplifikatzea da helburua, gutxia asko delako.

Gorriak aukeran

Askoren kolore sortan barnertuko gara. Gorriak, ezar daitezkeen koloreak dira eta benetan ederrak.



Berdeak

Natur giroetarako tonaltate epela. Gaur egungo bizitza ulertzeko koloreak dira, teknologia-tik hasi eta pop edo pentsamendu ekologikoetaraino.

Kolore neutralen sorta

Giro argitsu eta lasaietarako. Kolorerik onena ohiko koloreetatik atera nahi baduzu baina gehiegi arriskatu gabe. Tonali-

Laranja, berde, urdin eta horiekin nahastuta

Energia handia transmitituko dizuten koloreak dira eta pentsamendu positiboak iradokitzen dituzte.



JAVIER ZELAIA
648 143 615
ALTSASU

Pintura eta igeltsua

Zaharberritzeak eta obra berria

Barneko dekorazioa

Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

decoraciones
zuntaipe
Javier Malo Azpiroz 699 938 342

Zure ideiak margotzen ditugu
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

IÑIGO LAZKOZ
690 939 082
ETXARRI ARANATZ - Nafarroa

IRAIGORRI MARGOAK

Aero termia

Higroerregulazioa: aireztapen mekanikoan azken berrikuntza

Aireztapenaren bidez hezetasuna erregulatzea da kontua. Higroerregulagarriak diren sistematik etxe baten aireztapenerako dauden irtenbide hoberenetarikoak dira, etxea modu egokiz aireztaturik izateko, diru dezentere aurreztuz eta aire kalitate altua bermatuz.

Haizagailuek geletatik haizea xurgatzen dute, eta ondoren, behar adina aire sartzen dute gelakoa berrituz eta barruko egoera osasuntsua bermatuz. Automatikoki neurtzen dute airearen emaria. Horrela, kontsumoa adimendua eta neurtua da, aireberritu behar diren tokien benetako beharrei erantzuten zaie. Honek energia eraginkortasun handia dakar eta hornidurretan aurrezpena.

Sistema hauek haize xurgatzea eta erauztea neurtzen dute barruan dagoen batz besteko hezetasunaren eta pertsonen arabera. Aireberritzea etengabea da, minimoa gela baldintza onetan badago. Hortaz, kanpoko airea egongelatik edo logeletatik jasotzen da, eta aire zikina zonalde hezeetatik, komunitatik edo sukaldetik. Haize zirkulazioa toki lehorretatik hezeetara joaten da. Etxebizitzaren barruan, zirkulazio hori paretetan edo ateetan dauden irekiduretatik pasatzen da. Arrazoizko prezioa dute, edozein eraikinetan jar daitezke.

Aeroterminia eta Geoterminia: Ama Lurrak emandako aukerak

Etxebizitza bat eraikitzerakoan gaur egun gauza asko hartu behar izaten dira kontuan, baina gauden tokian egonda, klimatizazio sistemek pisu handia hartzen dute. Horiek guztiak energia berriztagarriekin lortzen badira askoz hobeto, kalifikazio energetiko handiagoak lortzen direlako eta gure planeta gutxiago kutsatzen dugulako. Norbanakoari hobeki egokitzen zaizkion sistema ezberdinak daude eta ikerketa sakon batzuen ondoren irtenbideak ere ezberdinak izaten ari dira. Oraingoan aeroterminiaz eta geoterminiaz arituko gara, naturak eskura jartzen dizkigun bi sistema ezberdin dira.

Aeroterminia bidezko berogailu sistema

Zer da aeroterminia? Kanpoko haizearen erabilera bero iturri moduan erabiltzea. Teknologia berri honi esker berogailu-bonbak ohikoak baino eraginkorragoak dira. Gainera aurrekoekin alderatuta aurrezpena %25ekoa eta %50ekoa izan daiteke.

Aeroterminiaren kasuan, gailuak kanpoan eta barruan kokatzen dira. Profesionalekin harremanetan jarri eta egokiena zein den aholkatuko dizute.


Hemen aeroterminia berogailu-bonbaren eskema:



Geoterminia bidezko berogailu sistema

Zer da geoterminia? Lurraren berotasuna aprobetxatzean oinarritzen den energia berriztagarria da eta horren ondorioz etxea eta etxebizitzako komunura (ACS) berotzen dira. Igerilekua izatekotan sistema berarekin berotu daiteke ura. Ura berotzeaz gain, udako egun beroetan etxea freskatzeko aukera eskaintzen du sistema honek.

Potentzia eta zerbitzu ezberdinak dituzten ereduak daude merkatuan. Hurbildu eta aholkatuko zaitugu.



Geoterminia jasotzeko modu ezberdinak dauzkagu: bertikala, horizontala eta freatikoa.

Xurgapen zentralizatua eta aireztapena

ASPILAN

Tejeria kalea, 31 | 31809 Ziordia
948 468 109 | 609 337 086

www.aspilan.com

ORLECHY
-RENOVABLES-

- Biomasa galدارak
- Estufak eta tximiniak
- Geoterminia eta aeroterminia
- Pellet salmenta on-line
- Instalazioa eta zerbitzu tekniko ofiziala

948 562 604 • Gipuzkoa kalea, 17 • Altsasu
info@orlechy.com • www.orlechy.com



Berokuntza


Zein da berokuntza sistemarik egokiena?

Tenperatura baxuei aurre egiteko berogailua beharrezko da. Hala ere, etxebizitza guztiek ez dute sistema berdina behar. Etxebizitzaren kokalekuak, klimak eta isolamenduak, etxearen tamainak eta banaketak, etxeko bizilagun kopuruak... baldintzatzen dute sistema bat edo beste bat jartzea.

Berogailu sistemak energia iturriaren arabera sailka daitezke (biomasa, geotermia, eguzkiarena, elektrikoa eta gasa) edo beroa lortzen den gailuaren edo sistemaren arabera (zoru erradiatzailea, haize bonba, elektrizitate metagailu bidez, konbektore bidez, igorle termoelektrikoen bidez eta ur bidezko erradiadoreen galdarak). Hauek dira batzuk.

Gas berogailua

Etxe gehienetan erabiltzen den energia iturria da hau. Energia garbia da, eraginkorra, kutsatzen ez duena. Berogailurako, sukaldarako eta ur beroaren produktzioarako hiru erregai mota dauzagu aukeran: gas naturala, C gasolia edo gas propanoa. Hiruretako edozeinek erradiadoreen beharra du, etxebizitzan



berotasun homogeneo bat ahalbidetzen baitute.

Elektrizitate metagailu bidezko berogailua

Berokuntza instalazio arruntena da bere instalazioari, mantenuari eta segurtasunari esker. Elektrizitatea berotasunean bihurtzen da berogailu elektrikoaren barruan dauden erresistentzia elektrikoek esker. Horien bidez, korronea pasatzen da eta elektrizitatea berotasunean bihurtzen du. Berogailu elektrikoak ez du oxigenorik kontsumitzen eta ez du gas kutsakorrik isurtzen. Berogailu mota hau herrialde epeletarako dago aholkatuta, etxea berotzeko potentzia asko behar ez duten etxeetarako.

Konbektore bidezko berogailu elektrikoak



Konbektoreen barrutik zirkulatzen duen airea berotzen du erresistentzia bidez. Sistema hau zonalde epeletarako dago aholkatuta, ur beroa termo baten bidez lortzen baita. Instalatzeko erraza da baina funtzionamendua garesti samarra izaten ohi da.

Igorle termoelektrikoak



Hauek olioeko erradiadoreak dira. Beroaren transmisioa olio termiko baten bidez lortzen da. Altzairu berezi batean blindatutako erresistentzia elektriko baten bidez berotzen da. Erradiadore bakoitza independentea da eta edozein lekutan entxufatu daitezke, galdarik eta hodi-teriarik ez baitu. Erradiadore hauek itzalita ere, ordu batzuez berotasuna isurtzen jarraitzen dute baina sistema garestia da argi potentzia handiagoa kontratatu beharko delako.

Ur bidezko erradiadoreen galdara



Sistemarik erabiliena da hau. Beroa adibidez, gas natural bidezko erregaiak errete lor daiteke. Galdara leku zehatz batean kokatzen da eta erradiadoreetarako banatzen da, uraren

bidez, beroa behar den lekuetara iritsiz.

Ura bero garraiatzaile moduan aukeratzeak prezioan du arrazoa, sustantzia merkea da. Bere berotasun espezifikoak beste sustantzia baino handiagoa da.

Lur erradiatzailea



Klima hotzetarako sistemarik erosoena da. Etxebizitzaren zoru azpitik ezartzen diren hodien edo kable elektriko bidez ura oso tenperatura altuenean mugitzen da. Berogailuaren %10 eta %30 bitarteko aurrezpena ahalbidetzen du sistema honek eta estetikoki irudi eder bat eskaintzen du erradiadoreerik ez dagoelako. Instalazioa jartzerakoan diru inbertsio handia eskatzen du eta berotasun puntu on bat lortzerako denbora pixka bat behar du, beraz ohiko eraikinetarako dago aholkatuta.

Berotasun bonba



Gailu berean neguan berogailua eta udan aire egokitua ahalbidetzen du. Biak sistema berean izateak, inbertsioa gutxitzen du eta instalazioa erraztu. Sistema eraginkorra da energia gutxi erabiltzen duelako nahi den tenperatura lortzeko. Gailuak zarata egiten du eta agian ez da oso eroso. Sistema hau negu ez oso hotzetako klimetan aholkatzen da. Edozein aldaketa egin behar bada instalatzaile espezializatu batek egin beharko du.

BETIERRE
tximinia zerbitzu teknikoa
640 29 47 89 / 696 71 80 47

Zerbitzu Tekniko Ofiziala

LACUNZA **MCZ** **EDILKAMIN**

MANUEL BERGERA S.A.
ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA

MABERSA

948 562 852 - 617 474 961
Zelai, 33 - 31800 ALTSASU (Nafarroa)
mabersa_alsasua@wanadoo.es

Iturgintza
Berogintza
eta Gasa

PEIO

659 286 344

iturgintza

Iturgintzan ere teknologia nagusi

Iturgintza eta teknologia

Puntako teknologiaz hizketan hasten garenean, iturgintzan hau aplikatzea askotan zail egiten zaigu. Oker gabiltza ordea, etorkizuneko sukaldean eta komunaren diseinuan pisu handia duen gaia baita. Teknologia eta jasagarritasuna eskutik doaz eraikuntzan. Ezerezetik hasitako proiektuetan edota eraberritzetan, iturgintza eta eraginkortasuna batera doaz.

Hoditeria adimendua da berrikuntza horietako bat. Sistema hauek instalazio guztia monitorizatzen dute, edozein arazo antzeman dezakete eta alerta seinalea bidali, gertatutako arazoa zehatz-mehatz izan den lekua erakutsiz.

Ingurugiroa zaintzeko, "eco-friendly" kontzientzia ari da zabaltzen. Erabiltzaileari, iturriak, dutxako buruak eta tangak, erabilera mugekin ezartzeak aurrezpena dakarkio.

Tenperaturarentzako LED teknologia aurki dezakegu. Iturrietan uraren temperatura koloretan antzeman daiteke, hotsa urdin eta beroa gorri, guztia argiaren bitartez.

Ur grisak birziklatu. Ur grisak garbigailu, komun edota harrasketatik soberan dagoen urari deitzen zaio. Hoditeriaren bidez soberan dagoen ur hau jaso daiteke eta bigarren erabilpen bat eman, dela lorategietan, dela ur hori erabilgarri izan daitekeen edozein tokitan.

Argi dago gero eta familia gehiagok berdearen aldeko apostua egiten dutela eta horregatik



garrantzitsua da merkatuan dauden teknologia berriei arreta jartzea eta erabaki bat hartzerakoan profesionalekin harremanetan jartzea.

Etxeko hodietan ataskoak zergatik?

1 Komuna zakarrontzi moduan erabiltzeagatik

Komunetik, komuneko papera ez den beste edozein objektu botatzeak ataskoa dakar beti.

2 Denborarekin hoditeriaren itsaspena handitzen da

Uraren higadurak hondatzen ditu eta etxeko hoditerian trabatzea sortzen da. Horrelako nahigabeak ez izateko hobe mantenu zerbitzu bat kontratatzea.

3 Mahai-tresnak harraskara eraman aurretik garbitu behar dira

Ekintza hori ez badugu egiten etxeko hodietan trabatzea gerta liteke. Hau izaten da trabatzeen ohiko arrazoietakoa bat.

4 Gizakiak beti ez gara trabatzeen errudun

Gerta daiteke egitura arazo bat izatea eta hoditeriaren malda gaizki egin egotea. Horrelakoe-tan hobe arazo hau konpontzea.

4 Produktu kimikoak, margoak eta folioak sekula ez bota hustubidetik

Hau egitean trabatzea sortu eta ingurugiroan kalte larriak sor daitezke.

Iturgintzako Zerbitzu integralak

Badira enpresa batzuk zerbitzu integralak eskaintzen dituztenak, Sakanako etxe partikularretara, komertzioetara edota bizilagunen komunitateetara, hedatzen den zerbitzua eskaintzen dute. Tek-

nologia modernoak erabiltzen dituzte, zailtasun handiak dituzten iturgintzako matxurei aurre egiteko, hau guztia etxebizitzan obrarik egin gabe. Ihesaldiak aurkitzen dituzte, propio erabiltzen dituzten kamara batzuekin. Kamara hauek iturgintzak sor ditzakeen egoera deseroso batzuk saihesten ditu.

Etxean hezetasuna eta usain txarrak dituzula? Gaur egun ekipamendu elektronikoek hodiak eta ezkutututako kutxatilak aurki ditzakete. Zerbitzua azkarra eta eraginkorra izaten da.

Ikuskaritza eta libratzeak: Kamara bereziekin egindako lanaren ondoren, txostena egin, arazoa aztertu eta berehalakoan lana egiteko prest egoten dira iturginak.

MANUEL BERGERA S.A.
ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA

MABERSA

948 562 852 · 617 474 961
Zelai, 33 · 31800 ALTSASU (Nafarroa)
mabersa_alsasua@wanadoo.es

ITURTRIKI

ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Ivan Sobredo

627 486 844 · Altsasu

mota guztietako **desataskoak**
ur-ihesaldien **detektagailua**

zitek

671 618 999 · 671 618 880 · Bakea kalea 6 · Altsasu · info@zitek.es · www.zitek.es

Etxebizitza berritzeko laguntzarik behar al duzu?

Nafarroako Gobernuak jarraitzen du etxebizitzak zaharberritzeko laguntza ugari ematen. Obra mota ezberdinetarako izaten ahal dira laguntzak. Etxebizitzan edo edozein eraikinetan mantenu-lanak egitea dagokion arreta ematea da, haren instalazioek modu egokian funtzionatzen eta dagokion xedea betetzen jarrai dezaten. Zaharberritze obra batean laguntzak jaso ahal izateko betebeharrak batzuk daude jasota eta tramitazioa egiteko ere EEZB bulegoetara jo beharko dugu. Sakandarrok Mankomunitateko egoitzan bulego horietako bat dugu eskura. Maiz, etxebizitzaren zaharberritze gaiekin hamaika galdera eta zalantza sortzen zaizkigu, hona horietako batzuei emandako argibideak:

Lokal bat etxebizitza bihurtzeko eta bizi-egokitasun zedula lortu?

Bizi-egokitasun baldintzen ikuspegi hutsetik, edozein lokal etxebizitza bihurtzeko, baldin eta lehendik baden eraikin batean etxebizitza berri bat egokitzeko obren bitartez arau guztiak betetzea lortzen bada: 142/2004 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxienezko baldintzak arautzen dituena, eta eraikuntzari buruzko gainerako arau aplikagarriak.

Arazo ohikoenak izaten dira gutxienezko garaiera ez dela nahikoa, edo ezin dela aireztapen-hodirik jarri estalkiraino hala behar duten gunetan.



Babes Ofizialeko azken etxebizitza Etxarri Aranatz

76 m² etxebizitza
+ 30 m² garaje
+ 4 m² trasteleku

ERAIKUNTZAK
JAMSAR S.L.

948 460 254
Nagusia, 15 atikoa 31820 Etxarri Aranatz
info@construccionesjamsar.com
http://www.facebook.com/JamsarSI
www.construccionesjamsar.com

EZKARATZAK BERRITZEN DITUGU

- >> Igogailuak jartzea
- >> Fatxada eta teilatua berritzea

ERAIKUNTZA

- >> Etxe bakarrak
- >> Etxebizitzaren birgaitzea
- >> Industria nabeak

Laster eraikitzeako
5 BOE
Arbizun

SOURTETIK GORAKO ESPERIENTZIAREN BERMAREKIN

KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA EGINEN DIZUGU!!!

Zaharberritzeko diru-laguntzak eskatu dituzten etxebizitza kopurua urteka



Kontuan izan behar da bizi egokitasun baldintzez gain beste baldintza batzuk ere bete behar direla, hala nola, hirigintzako udal planak onartutako erabilera izatea eta behar den lizentzia eskuratzea. Baliteke eraikineko jabeen erkidegoaren baimenak eta beste batzuk behar izatea.

Maiz, etxebizitzarako eraikinetan, etxebizitzaren bat beste zerbaite-rako erabiltzen da aldi baterako (bulegoak, ile-apaindegiak etab.). Horrelako bat, erabilera aldatuta, etxebizitza bihurtu nahi bada berriro, etxebizitza berritza hartu behar litzateke, edo lehendik baden etxebizitza baten zaharberritzea litzateke?

Etxebizitzetarako eraikin batean haietako baten batek etxebizitza izateari utzi badio, behin-behinean beste zerbaite-rako erabili delako, eta jatorrizko etxebizitza-erabilera berreskuratzen bada, lehendik baden etxebizitza baten zaharberritzetza hartu behar da hori, eta, beraz, 142/2004 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen aplikatzean, I. eranskineko baldintzak aplikatuko zaizkio eta, II. eranskinetik, esku-hartze mota horrekin bateragarriak direnak soilik.

I. eranskineko baldintzak beretik ere, gainera ezin izanen dira etxebizitzaren hasierako baldintzak txartu, edo, horiek ezagutzen ez badira, eraikin bereko beste solairu batzuetan kokaera erlatibo bera duten beste etxebizitzetak.

Eraikin batean zenbat igogailu jarri behar diren zehazteko, erabiliko dituzten etxebizitzaren kopurua kontatu behar da. Beheko solairuko etxebizitzak ere kontatu behar dira?

2017 urtean zaharberritzeko diru-laguntzak eskatu dituzten etxebizitza kopurua herrika



Gutxieneko bizi egokitasun baldintzei buruzko martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuaren 4.7 artikulua haxe dio: Igogailu kopurua 24 etxebizitza igogailuko ez gaitzeko moduan zehaztuko da.

Dekretu beraren 4.8 artikulua haxe dio: solairu batzuetan garajeak edo etxebizitzetarako trastelekuak daudenean, igogailuak beste solairuetara bezala joanen dira haietara.

Bi egoera hauek gerta daitezke, gutxienez:

1.- Beheko solairuan dauden etxebizitzek zuzeneko sarrera dute kanpotik, ez dute sarrerarik atari barnetik, eta garajera, trastelekuetara edo dagozkien beste elementu komunetara ere ez dute sarrerarik ataritik, beste toki batetik baizik. Hau da, ezin dituzte igogailuak erabili.

Kasu horretan, igogailu bakoitzeko zenbat etxebizitza diren kalkulatzeko, beheko solairuko etxebizitzak ez dira kontuan hartu behar, ezin dutelako igogailurik erabili; hala ere, bermatu egin behar da etxebizitza horiek irizpidea izanzen dutela eraikinetan dagozkien elementu komunetara eta garaje edo trastelekuen gisako eranskinetara.

2.- Beheko solairuko etxebizitzek, kanpotik edo lorategitik zuzeneko sarrera ere izan edo

ez izan, badute igogailura iristea, ataritik edo beheko solairuko banagunetik barrena.

Kasu horretan etxebizitzaren erabiltzaileak igogailuen erabiltzaile ere badira eta ez dago arrazoirik etxebizitza horiek bazter uzteko, igogailu bakoitza zenbat etxebizitzak erabiliko duten kalkulatzeko.

Zer da zaharberritze babestuko eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzea?

Honetaz ari garela, eraikinaren inguratzaile termikoaren osagaiak dira kanpoaldearekin kontaktuan dauden haren eraikuntza-elementu guztiak: kanpo nahiz barne fatxadak, baoak barne; estalkia; eta ataripeen edo hegaleen gaineko forjatua.

Inguratzaile berriak bete behar dituzte eraikuntzako kode tekniko CTE DB HE 1 eskakizunetan (Energia-eskaria mugatzea) oin berriko eraikinetako inguratzaileen osagaien zatiz ezaizten diren baldintzak.

Bizilagun-elkarte batek sustatzen duen inguratzaile termikoaren hobekuntza, zaharberritze babestuari dagokion %40ko diru-laguntza eskuratzeko eskubidea izan dezakete baldin eta hobekuntzaren xede den eraikina eraikitze garaian ez bazen aplikatu behar NBE CT-79 araua oraindik ez zegoelako indarrean.

Higiezinak: 2018 urtean zer?

2018 urtea nolakoa izango den asmatzea ez da erraza izango aurrekoa nola amaitu zen aztertu gabe.

Hainbat dira zalantzak. Nola itxi dira 2017ko kontuak? Zein da gazteen egoera?

Jarraian galdera horien erantzuna argitzen saiatuko gara ondoko lerroetan.

Gaur egungo egoera

Higiezin eskariak 2017an %12ko igoera izan du. Azken urteetako joera kontuan izanda igoera hau garrantzitsutzat har daiteke. Alokairuan dauden %57k erostea nahi dute. Pausu hori erditik gorako kopuruetan mugitzen ari da eta azkenik, hipoteken baldintzen eraginez 10etik 6k etxebizitza edo hipo-

teka dute. Azkenik %10k bigarren etxebizitza du baina atzerrian ez bezala (alokairurako edo inbertsiorako erosten baitute) bigarren etxebizitza hori oporraldietarako erabiltzen da.

Datu hauek guztiak kontuan izanda, nolako egoeran daude gazteak?

Gazteen egoera aztertuta, alokairua eta erosketaren arteko zubian kokatzen da etorkizuna, aldeko eta kontrako iritzia eta aukera sutsuekin. Europako datuekin alderatuta %6 gutxiago bizi da alokairuan. %67 400 euro ordaintzeko prest dago gela baten alokairuaren edo etxebizitza konpartitu baten truke. Baina erostean hitz egiten badugu, %21k hileroko gastua 500€tara igozten du.

Eguno egoera



BENETAN BEHAR
DUZUNA BILATZEN
LAGUNDUKO DIZUGU.

**INMOAGURAIN
BILIARIA**

Aukeratu non bizi nahi duzun!

www.inmobiliaria-agurain.com

Etxea berritzea buruko minik gabe

Zure etxean edo komunitatean eraberritze bat egin nahi duzu? Iturgin edo elektrikari bat behar duzu? Zure bainugelan erreforma egin nahi duzu? Edota beste lanen bat egin nahi duzu?

Higiezinen merkatuan aldaketak eman zirenetik, etxebizitza berritzeko eta etxean erreformak egiteko susperraldia eman da. Etxea aldatzea batzuetan zail gertatzen denez, bertan aldaketak egitea erabakitzen du jendeak. Horretarako gremio ezberdinen beharra izaten da, honen ondorioz, zerbitzu horien eskaera asko handitu da. Sakanan aukera handia dago eta erabakiak hartu beharra dago, ez da erraza asmatzen. Honetan lagungarri egingo zaizkizu gremio kudeatzaileak. Etxea berritzeko erabakia hartzen denetik, lana bukatu arte haiek koordinatuko dute guztia.

1 Zer eta noiz? Profesional bati deitu aurretik zein aldaketa egingo dugun erabaki beharko dugu baita noiz egingo dugun ere. Ongi planifikatu behar da guztia, dirua ongi kudeatzeko eta ezustekoak saihesteko.

2 Aurrekontuak. Hurrengo pausua lan horiek nork egingo dituen erabakitzea izango da. Aurrekontu ezberdinak izango ditugu mahai gainean eta argibideak ere eskatu beharko ditugu. Kontratatzeko dugun enpresak berme batzuk eman behar ditu,



besteak beste material onak bermatu eta lana ongi egingo dutela ziurtatu. Ahal dela hau guztia idatziz jaso beharko genuke.

3 Dokumentazioa. Komeni da aurrekontua idatziz jasotzea, zer motako materiala erabiliko den, eskulanak zenbat balioko duen, ordainketa nola egingo

den, zerbitzuak noiz bukatuko diren...

4 Dirua arretaz kudeatu. Profesional askok aurrekontuaren zati bat aurreratzea eskatzen dute baina hobe da hori ez egitea eta hori egiten bada, zertxobait besterik ez da aurreratu beharko (%25 izan liteke) eta hori egiterako faktura edo ziurtagiria eskatu.

5 Lanak amaituta. Fakturak ongi eginda egon behar dute. Enpresaren eta bezeroaren datuak, materialaren prezioa, zergak eta beste. Ordainagirik eta bermek data izan beharko dute. Lanak amaituta bezeroak zerbait hondatuta dagoela sumatzen badu ez du ordainduko, harik eta kaltetutako lana amaitu arte.

Gremio kudeatzaileak kontratatzeak onurak dakartza

1. Profesionalak kontratatuko dituzte.
2. Erantzukizun zibileko aseguruia bermatzen duen profesionala hautatuko da.
3. Aurrekontu ezberdinak aurkeztuko dizkizute.
4. Aurrekontuak idatziz jasoko dituzte.
5. Dokumentazio guztiaren kudeaketa egingo dizute.
6. Lanak gremio ezberdinek egin behar badituzte haien esku geratzen da kudeaketa.
7. Aurrekontuek BEZ-a izango dutela ziurtatzen dizute, honek bermea ematen duelako.


LABORAL
kutxa

Sakanako bulegoak

Altsasu
948 562 461

Etxarri Aranatz
948 460 300

Lakuntza
948 567 203

Irurtzun
948 507 014

www.laboralkutxa.com

 **taldea**
ASISTENCIA

BERRITZEAK ETA KONPONKETAK

IGELTSEROTZA
TEILATUGILEAK
ITURGINTZA

KRISTALDEGINTZA
SARRILAGINTZA
ELEKTRIZITATEA ETA ANTENAK

GARTZIA XIMENEZ, 16-2. E - ALTSASU

Bainugela berrituko dugu?

Ahazu egiten zaigu zein maiztasunekin egiten diogun bisita bainugelari, baina egunean makina bat aldiz bertatik pasatzen garela jakina da. Etxea berritzean aldiz, batzuetan hor dagoela ahaztu egiten zaigu edota hau berritzea gehiago kostatzen zaigu.

Egunero erabiltzen dugun etxe-ko gunea da eta erreforma gutxien jasotzen dituen. Estetika arrazoiak edo jabeak aldatzea izaten dira erreforma egiteko premia adierazten duten gakoak. Etxe berrietan ur-hodiak 25 edo 30 urteren bueltan egoera oso onean mantentzen dira, baina etxe zaharretan erreforma horiek hodiak aldatzea ekartzen dute.

Aukera dago bainugela bere osotasunean ez aldatzeko edo lan erreforma osoa egiteko. Izan daiteke gailu edo armairu batzuk aldatu nahi izatea, partzialki erreforma egitea. Erreforma osoa denean, hainbat lanbidez osatutako lana izaten da: iturginek, argiketariak, eskaiolistek eta margolariak hartuko dute esku.

Zatikako erreformak

